

ANEXO 7

GARDENTASUN BETEBEHARRARI BURUZKO ADIERAZPENA

Izena-abizenak: _____	
Honako hau ordezkatzuz: _____	IFK: _____
Helbidea: _____	
Herria: _____	Posta kodea: _____

Betebeharraren arrazoiak:

- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak (2018ko 98. NAO, maiatzaren 23koa) Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargurako dirulaguntzen entitate onuradunen gardentasun betebeharra arautzen ditu, bere 3.c) artikuluan xedatutakoarekin bat (ikusi 1. argibide jakingarria).

- Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea arautzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen hamargarren xedapen gehigarriak ezartzen du mezenasgo sozialaren ondoriozko pizgarrien araubidera iristeko aurreikusitako prozedura. Araubide horren entitate onuradunek dirulaguntza publikoen entitate onuradunei ezarritako gardentasun betebeharra bete behar dituzte.

Hori ikusita, **ADIERAZTEN DUT** (hiru laukitxoetako bat markatu):

- ☐ **Ez nagoela behartua gardentasunari buruzko betebeharra betetzera** (ikusi informazio jakingarriak, 1.a eta 2.a)
- ☐ **Gardentasun betebeharra dudala** eta dagoeneko informazio osoa aurkeztu dudala.....
...(e)n deialdia dela eta, mezenasgoa aitortzeko edo dirulaguntza jasotzeko; hortaz, ez da berriro aurkeztu beharrik, emandako datuak aldatu ez direlako.
- ☐ **Gardentasun betebeharra dudala**, eta hortaz, jakinarazten dut 5/2018 Lege Dekretuaren 12.4 artikuluan eskatutako informazioa, adierazpen honen eranskinetan.
- ☐ Organoen osaketari eta dedikazioari buruzko adierazpena.
 - ☐ Organoetan dauden ordainsariei buruzko adierazpena.
 - ☐ Azken urteko kontuak, balantzearekin, galera-irabazien egoera-orriarekin eta memoriarekin (ikusi argibide jakingarriak, 6.a).

KONFIDENTZIALTASUN ETA EGIAZKOTASUN KLAUSULAK ONARTZEA:

☐ Konfidentzialtasuna:

- Jasotzen diren datu pertsonalak Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak tratatuko ditu, Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiaren bidez, Gobernu Irekiaren atarian argitaratzeko, laguntzen eta/edo dirulaguntzen erakunde onuradunen publizitate aktiboko betebeharrak betez, maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 3 c) eta 12.4 artikuluetan eta 59/2013 Foru Dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera. Orobat, jakin ezazu zure eskubideak erabiltzen ahal dituzula lotura honen bidez <https://www.navarra.es/eu/datuen-babesa> . Informazio gehiago: [https:// gobiernoabierto.navarra.es/eu](https://gobiernoabierto.navarra.es/eu).
- Eskatutako datuak nahitaezkoak dira, eta egiazkoak eta zehatzak izan behar dute. Bestelakoak badiira, indarreko legeriaren ondorioak etor daitezke.

☐ Egiazkotasuna:

- Aitortzen dut adierazpen honetan emandako informazio guztia egiazkoa dela.
- Badauzkat informazio horren egiaztagiriak, jatorrizkoak edo kautotuak (tituluak, ziurtagiriak eta gainerako dokumentu ofizialak barne).
- Informazio hori egiazkoa dela aitortzen dut eta, bertan datu faltsurik egonez gero, nire gain hartzen dut haien ondorioz etor litezkeen kalte-galeren erantzukizuna.

(herria eta data)

Sin.: (Izen-abizenak) _____

Kargua _____

ADIERAZPENA EGITEN DUEN ENTITATE ONURADUNARENTZAKO ARGIBIDE JAKINGARRIAK:

1. Foru lege horren 3. artikulua c) apartatuak ezartzen duenez, dirulaguntzak jasotzen dituzten entitate pribatuek gardentasun betebeharra dute bi inguruabar hauetako bat gertatzen denean:
 - a) Emandako dirulaguntza 20.000 eurotik gorakoa izatea urtean.
 - b) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa bere urteko sarreraren % 20 baino handiagoa izatea, betiere gutxienez 5.000euro egiten badute.
2. Pertsona fisikoek ez dute gardentasun betebeharrari buruzko adierazpena aurkeztu behar.
3. Adierazpen hau eta kasuan eranstean den informazioa telematika bidez aurkeztuko dira Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bitartez, dirulaguntza kudeatzen duen administrazio unitateari zuzendurik.
4. Adierazpen hau igortzeko epea hilabetekoa da dirulaguntza ematen duen ebazpena jakinarazten edo argitaratzen den egunetik hasita. Irailaren 11ko 59/2013 Foru Dekretuaren 7. artikulua arabera, betebehara hori betetzen ez bada, ezin izanen da emandako dirulaguntza ordaindu.
5. Entitate onuradunak ematen duen informazioa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko da. Informazio hori urtebetez egonen da eskura argitaratzen denetik. Epe hori pasatuta, hura argitaratzeko ardura duen unitateak ofizioz kenduko du, eta, hala egin ezean, entitate onuradunak eskatzen ahalko du kentzeko.
6. Sortu berriak diren entitateen kasuan, informazioa izanen da haien aurrekontuetan edo plan ekonomiko-finantzarioan jasotakoa.



KARGUEN ORDAINSARIEI BURUZKO ADIERAZPENA

Entitatea: _____

IFK: _____

ORGANOA	KARGUA	ORDAINSARIAK

_____, _____
Herria eta data



Entitatea: _____

IFK: _____

ORGANOA	KARGUA	ORDAINSARIAK

_____, _____
Herria eta data



ORGANOEN OSAKETARI ETA DEDIKAZIOARI BURUZKO ADIERAZPENA

Entitatea: _____

IFK: _____

ORGANOA	KARGUA	IZENA	DEDIKAZIOAREN ARAUBIDEA

_____, _____
Herria eta data



Entitatea: _____

IFK: _____

ORGANOA	KARGUA	IZENA	DEDIKAZIOAREN ARAUBIDEA

_____, _____
 Herria eta data